

Bi elkarte

antzerkilarien zerbitzuko:

ANTZERKILARIEN BILTZARRA

(1966-1981)

EUSKAL ANTZERKI

TALDEEN BILTZARREA

EATB Hegoaldeko adarra (1976-1985)

EATB Iparraldeko adarra (1982-1995)

Bilduma honen egilea:

DANIEL LANDART

2014ko abendua

Aitzin solas gisa...

Hogeita hamar urte... Bi elkarteren hogeita hamar urteko historia, guti gora behera: Ipar Euskal Herrian Antzekilarien Biltzarra elkarteak abiarazi genuen lehen egunetik eta Euskal Antzerki Taldeen Biltzarrea – EATBren azken ekintzak arte...

Haste hastetik eta kasik «azken hatsak» eman zituzten arte, bi elkarteetako kide izan bainintzen, barne-barnetik bizi izan nuen garai itxaropentsu hartaz mintzatzeko nihauren oroitzapenei deit egin diet, etxeko paperak hobeki ikertuz edota Uztaritzen dagoen EATBko artxibotegira joz, halaber duda bat edo beste nuelarik Eugenio Arozena Oiartzungo lagunari eta beste batzuei aholkuak galdegin.

Horrelaxe beraz Antzekilarien Biltzarraren hastapeneko urteak bi zatitan kontatzen ditut (1966-76 eta 1977-81) eta gero, Euskal Antzerki Taldeen Biltzarrea – EATB bilakatu zelarik, hamar zatitan banatzen ditut mugaz bi aldeak estaltzen zituen elkartearen ekintzak, izen bera ukanagatik, bi egitura desberdin zirenak.

Ezagutu nituen ezagutu, anitz eta anitz jende suhar, bi elkarte haietan lan ederrik egin zutenak taldeetako jokalarien laguntzeko, euskal antzerkiak iraun zezan, iraun baino gehiago, beste herrialdeen mailara hel zedin, gaiak eta jokamoldeak etengabe berriztatuz.

Izen batzuk behin betikoz gogoan finkaturik dauzkat eta eskertu nahi ditut bereziki Angel Arregi, Koldo Amestoy, Klotilde Senpé garai batean biziki lagundu nindutenak eta gero ene ondotik EATB Iparraldeko adarraren lehendakari izan zirenak: Daniel Arbeletche, Kattalin Sallaberry eta Pantxoa Etchegoin. Halaber Peio Berhocoïrigoin, Menane Oxandabaratz eta Txomin Héguy.

Hegoaldean egin bilkuretan maizenik gurutzatzen nituen taldeetako ordezkariak ziren: Eugenio Arozena, Marian Arruti eta Jose Mari Carrere (*Intxitxu* - Oiartzun), Martin Idiakez, Lukas Dorronsoro eta Joseba Escudero (*Goaz* – Deba), Maria Arizmendi, Jokin Izagirre eta Josu Garmendia (*Egi Bila* – Urnieta), Edurne Lasa, Xabier Ansola eta Jose Mari Larrañaga (*Taupada* – Elgoibar), Xabier Urzelai (*Xaribari* – Donostia), David Gomara eta Sabino Irartorza (*Ereintza* – Errenteria), Enkarni Genua (*Txotxongilo* – Donostia), Pello Aramaio eta Juan-Antonio Urruzuno (*Kresala* – Ondarru).

Izen hauekin batera, beste askorenak goretsi behar ditut, hala nola Azpeitiako *Antxieta* taldeko zenbait: Imanol Elias idazle eta zuzendari zena, baita Jose Zabala eta Jose Aranburu, ongietorrikeri hobereana egiten zidatenak urteroko Antzerki festibalaren garaian. Aipamen berezi bat merezi du ere Lazkaoko Jose Mari Begiristain lagunak, Iparraldeko talde bat 1971an bere herrira gomitatzuz, urrats garrantzitsua egin baitzuen geroari buruz.

“Bi elkarte antzerkilarien zerbitzuko” bilduma honetan anitz xehetasun aurkituko dituzue, eta batzuetan, nahitaez, errepika zenbait ere. Gauza batzuren errepikatzea nardagarri baldin bada, sumindura handiagoa sor dezake zerbaiten edo norbaiten ahanzteak. Eta hain segur hori gertatuko da lan honekin. Barka otoi!

Bestalde, baten batek aurpegiatuko dit elkarte haien ibilmoldearen edota ekintza batzuen kritika eskasa. Baina ba ote da itzal gabeko obrarik?

Dena dela, hogeita hamar urte estaltzen dituen bilduma hau oinarrizko lan bat baizik ez da, beste ikertze eta sakontze batzuentzat ekai izan daitekeena.

Bitartean, antzerkiaren bidez euskal kultura bizi arazi zuten guztiei agur, ohore eta esker on! Biharkoek ere ildo beretik segi dezatela!

Daniel LANDART

Uztaritzen,
2014ko abenduaren 11n.

ANTZERKILARIEN BILTZARRA elkartea

(Bi zatitan: 1966-1976 eta 1977-1981)

Sorrerako urratsak, bilkuren bildumak,
Administrazio Kontseiluko eniznak,
erabaki garrantzitsuak, ekimen nagusiak

Antzerkilarien Biltzarra elkarte

(Lehen partea: 1966-1976)

Euskal antzerki taldeen artean elkarte baten sortzeko ideia Jakes Abeberry Enbata mugimenduko buruzagiak eman zidan. Baionan egiten genituen bilkuretan maiz errepikatzen zigun: “Euskal Herriko giderrak, **guk abertzaleek** hartu behar ditugu. Herriaren geroa gure esku dago, bakoitzak gure sailean egitura berriak asmatuz.” Eta bekoz-beko begiraturuz erran zidan: “Hi, Daniel, adibidez, teatroan ari haiz... Iparraldeko talde guztien **federazio** bat egin behar huke”.

Proposamena biziki ona kausiturik, berehala aipatu nien ni bezala Enbatakideak eta antzerkilariak ziren Pettan Elissalde Irisartarrari, baita Martxalin eta Xalbat Arbelbide Heletar lagunei. Adostu ginen, lehenik, elkarretaratze xume bat antolatuko genuela, talde desberdinetako jokalarien artean elkar pixka bat ezagutzeko eta elkarrekin ikusteko geroan zer egin.

Martxalin eta Xalbat Arbelbide anaia-arrebak Heletako taldekoak baitziren, eta talde hark preseski 1964ean teatro sariketa bat antolatu baitzuen, erabaki genuen delako topaketaren Heletan egitea. Gainera, 1966ko urtarril hastapenean taularatu zuen “Hazparneko Anderea” Monzonen obrak sekulako arrakasta biltzen ari zuen.

Antzerkilariekin batera, absolutuki gonbitatu nahi genituen ere Piarres Larzabal eta Telesforo de Monzon maisu handiak. Haien abisatzen izanik eta ongietorri hoberena ukanik, biek hitzeman ziguten parte hartuko zutela.

Heletako eguna 1966ean

Hona Heletako antzerki taldeko gazteek luzatu ziguten gonbita:

Adiskide(ak),

Ekainaren 5ean, Trinitatez, dugu Heletan teatroaren eguna. Pentsu dugu parte hartu nahiko duzula elgarretaratze handi hortan. Hona egun hortako harat-honatak:

10:00etan: Meza kantatua, predikari Larzabal apezka (denak hortarat gomit dira). Ondotik biltzarrea Gaztetxean. Mintzatuko dira Larzabal jaun apezka eta de Monzon jauna. Gero baso trinkatzea.

13:00etan : Bazkaria orok elkarrekin (prezioa 12 libera). (12 franko = 1,83 €).

Igor zuen izenak ekainaren 1ean berantenez: J.-P. Curutchet – 64 – Hélette – Tél. 8.

Zure laguner aipa –talde osoak jin daitezela– ondorio onak ekar dezazke elgarretaratze handi horrek. *Heletako gazteak.*

Gonbitean idatzita zegoen bezala iragan zen eguna. Jokalari guztiak giristino praktikazaleak baikin, meza nagusia entzun genuen lehenik, Aita Larzabal predikari. Ondotik, zinema aretoan, Larzabal eta Monzon mintzatu zitzaizkigun. Bilkura bukatzean, Xalbat Arbelbidek parte hartzaileei jakinarazi zien elkarte berri baten egiteko xedetan ginela. Jokalariak franko ados agertu ziren.

Bazkaltzeko, «Irigoinea» ostatuan, hogeitahamar jende bildu ginen eta Mixel Labeguerie ere gutarteratu zitzaigun, garai hartan Frantses Legebiltzarkide zelakoz eta Euskaltzaleen Biltzarra elkarteko lehendakari. Giro goxoan iragan zen bazkaria, tira-ahala kalakan eta kantuz. Baina arras ongi sentitzen genuen ez ginela denak ideia berekoak eta beren burua «euskaltzale bakarrik» zeukatenak mesfidatzen zirela gu bezalako «euskaltzale-abertzale» batzuek.

Dena dela, Heletako egunaren ondotik, laupabost lagunek segitu genuen noiz behinka elkartzen, elkarte berriko helburuen finkatzeko eta Baionako Suprefeturan ere izan nintzen Araudiak nola idazten ziren jakiteko. Eta urtea ohartu gabeen joan zitzaigun...

1967an: Biltzar Nagusi sortzailea

Bakoitzak gure aldetik ezagutzen genituen antzerkilariei gonbita luzaturik, *Antzerkilarien Biltzarra* gure elkarte berriaren Biltzar Nagusi sortzailea **1967ko maiatzaren 28an** egin genuen, Mendekostez, Baigorriko Bil-Etxea zinema salan.

Aitzinetik hitzartuak ginen bezala, Xalbat Arbelbide heletarrak bilkura kudeatu zuen. Ongietorria Joseph Errotabehere baigorriarrak egin zigun. Jokalarien artean zeuden hautetsi batzuk ere: Minjonnet Baigorriko auzapeza, Jean Etcheverry-Aintchart Departamenduko Kontseilaria, Michel Inchauspé, Frantses Legebiltzarkidea, halaber Michel Labeguerie, Kanboko auzapeza eta Departamenduko Kontseilaria, Eskualtzaleen Biltzarra elkarteburua. Xalbat Arbelbidek agur berezi bat egin zion Telesforo de Monzon jaunari, antzerki idazle eta Euskal Gobernuko Barne ministro ohiari.

Ondotik, irakurri zizkigun elkarte berriko *Statuts* edo Araudiak, orotara sei artiku zeuzkatenak. Legearen arabera, frantsez hutsez idatziak izanez, laburbilduko dut bakoitzaren funtsa:

- 1) Antzerkilarien Biltzarra 1901ko uztailaren 1.eko Legearen barnean sartzen den elkarte bat da. Helburuak: euskal antzerki ekintzen koordinaketa, antzerki animatzaileen esku ahalbide teknikoan ezartzea, euskal kulturaren bultzatzea molde egokiak erabiliz.
- 2) Elkartearen helbidea: Baionan, Cordeliers karrikako 14ean.
(*Oharra:* Enbata abertzale mugimenduaren egoitza zen)!
- 3) Elkartearen iraupena mugagabea da.
- 4) Elkartearen funtzionamendua: nor izanen den kide, zergaitik norbait konporatzen ahalko den, urtero Biltzar Nagusi bat egin behar duela, Zuzendaritzak lau kideko bulegoa edo biltzar txikia hautatuko duela.
- 5) Diru kontuak. (Urte sariak, diru laguntza publikoak, autofinantzamendua).
- 6) Zuzendaritzak Barne Arautegia finkatuko duela Araudien zehazteko, Biltzar Nagusiko kideek onartu beharko dutena.

Barne Arautegiak hiru pondu zehazten zituen, hala nola lehendakaria dela elkartearen ordezkari bakarra Justiziaren aitzinean eta diru erantzule gisa. Zuzendaritzaren eta Biltzar Txikiaren bilkurak jarraituki eginen direla. Bestalde argiki idatzia zen, gure elkarreak Hegoaldeko antzerki taldeekin harremanak ukan behar zituela.

Biltzar Nagusi sortzailean parte hartu zuten taldeak herri hauetakoak ziren: Baigorri, Beskoitze, Hazparne, Heleta, Irisarri, Itsasu, Makea, Mugerre, Senpere, Urruña.

Araudiak eta Barne Arautegia, eskua altxatuz, denek onartu genituen. Elkarteko bulegoa, beroan-bero osatu behar zela eta, Xalbat Arbelbidek lau izen hauek proposatu zituen:

Lelendakari: Daniel Landart (Mugerreko taldekoa), lehendakariorde: Jean-Pierre Curutchet (Heletakoa), idazkari: Pettan Elissalde (Irisarrikoa), diruzain: Laurent Pétricorena (Baigorrikoa).

Lauak, biltzarkideez onartuak izan ginen.

Frantzian, Legeztatuak diren elkarreentzat ohi den bezala, *Journal Officiel* kazetak plazaratu zuen 1967ko ekainaren 8an Antzerkilarien Biltzarra elkarte sortu zela. Hasten ahal ginen beraz lanean!

Elkarte gisa onartuak ginenaz geroz, diru laguntza bat galdegin genion Departamenduko Kontseilu Nagusiari. Erantzun zigun “euskal kulturarentzat diru

orokor bat ematen ziola Euskaltzaleen Biltzarra elkarteari, eta beraz, harekin ikusteko”. Hark erran bezala egin genuen...

Antzerkilarien Biltzarra elkarteak talde bat sortu

Epe laburrean hainbeste antzerkilari ezaguturik, baita Larzabal eta Monzon maisuen aholkuak entzunik, gogora jin zitzaigun “ordu arte ikusia izan ez zen zerbait berezi egin behar genuela”. Zer ote? Franko laster pentsatu genuen Antzerkilarien Biltzarra elkartearen babesean herri desberdinetako jokalaririk bizkorrenak bilduz haiekin talde bat osatzea, Baionako herri antzokira hupatzeko xedearekin. (Areto hura baitzen Iparraldeko haundiena).

Enbatako bilkura baten ondotik Roger Idiart apezari aipatu nion gure asmoa eta hark berehala erran zidan Piarres Larzabalek obra berri bat idatzi zuela eta nahi bagenuen irakurriko zigula. Bi aste barne multzo bat elkartu ginen eta biziki gustatu zitzaigun “Matalas” antzerkia, XVII. mendeko gertakari historikoan oinarritzen zena.

Antzerki hark hamazazpi jokalaria eskatzen zituen. Roger Idiart apezka (Larzabalen adiskide mina) eta nihaur ibili ginen antzerkilariak ezin atzemanek eta 1967ko udazkenean hasi genituen errepikak.

Pertsonaien banaketa Roger Idiart apezak egin zuen, eta funtsean, hastetik buru, biziki lagundu gintuen testua behar bezala ahoskatzen eta taulagaineko urratsak irakasten. Azken errepikak kudeatzeko Tefesforo de Monzon bera jin zitzaigun. Harekin sentitu genuen maisu handiaren eskua!

“Matalas” antzerki dramatikoa 1968ko apirilaren 5ean estreinatu genuen. Baionako emanaldi hark ospe handia bildu zuen. Jendea, ezin sartuz, kanpoan gelditu zen. Bigarren emanaldia Urruñako *Itsas-Mendi* aretoan egin genuen. Han ere, sekulako jendetza.

Urte berean, herrietako beste taldeek ere, antzezlanak eskaini zizkiguten.

Baigorriarrek: «Zurgin zaharra» (T. de Monzon),

Hazpandarrek: «Etxahun» (P. Larzabal),

Heletarrek: «Menditarrak» T. de Monzon),

Itsasuarrek: «Suedako nexkatxa» (P. Larzabal).

Urte oroz obra berri bat

Arrakasta handi haren ondotik, Antzerkilarien Biltzarra elkartearen babesean bildu taldeko jokalariek erabaki genuen bide beretik jarraiki behar genuela urte oroz obra berri bat plazaratuz. Piarres Larzabalek beste antzerki bat idatzi zigun: «Ibañeta».

«Ibañeta» emateko lau emazte eta hamabi gizon behar ziren. Orreagako gudua itxuratzeko beste bospasei gizon etorri zitzaizkigun *Oldarra* Biarritzeko dantza eta kantu taldetik.

Jaun Apezpikuak Roger Idiart apeza Zuberora izendatu baitzuen Zalgizeko erretore izateko, de Monzon jaunari galdegin genion hastetik buru laguntzen ahalko gintuenez. Gogo onez onartu zuen. Christiane Etchalusek, bere aldetik, Parisko «Théâtre du Soleil» taldearen lana bereziki maiz aipatzen zigun, euskal antzerkia ere bere betiko bidetik atera zedin proposatuz. Monzonek arrazoi ematen zion eta guk segitzen...

Zortzi hilabete luzez obra ezin ikasiz ari izanik, azkenean agertu genuen «Ibañeta» 1969ko udaberrian Biarritzeko kasinoan eta Baionako antzokian.

Publikoak «Matalaz» obrari konparatu zuen eta ez zitzaion hanbat gustatu. Alta, antzerki emateko aldetik, berrikuntza interesgarriak baziren. Baina egia deplauki aitortzeko, jokalaria ez ginen prest. Ez prest! Batzuek, ezaxolkeriaz, errepika gehiegi huts egin baitzuten...

Antzerkilarien Biltzarra elkarteko Biltzar Nagusia 1969ko ekainaren 26an egin genuen Baionan.

Bulegoko kideak berriz hautatuak izan ziren: Daniel Landart elkarteburu, inguruan zeuzkala: Jean Idieder, Txomin Ezponda, Michel Brust, Jenofa Chabagno, Angel Arregi eta Pettan Elissalde.

Orduz geroztik, Angel Arregi jaunak parte hartzen zuen bilkura guzietan, aldi oroz solasgaien bilduma eginez. Zinez balio handiko lankidea zen!

Taldea arinago, emanaldi gehiago

Piarres Larzabalek, bi drama historikoen ondotik, antzerki irringarri bat idatzi zigun: «Ihauteriak». Baina ez zitzaigun hainbat gustatu. Gainera, hirugarren obra hark

ere jokalaria andana handia eskatzen zuen. Ordukoz hauxe ikasia genuen: jokalaria gehiago eta arriskuak handiago... Funtsean, anitzek jakinarazi ziguten ez zutela segituko.

Antzerkilari izateak antzerki idazteko nahikeria eman baitzidan, preseski, orduantxe bukatua nuen “Bai ala ez” obra lagun batzuei irakurri nien. Aho batez onartu zuten, garai hartako giroan kokatzen zelako, Iparraldeko gazteen kezka aipatuz. Zortzi pertsonaia behar ziren. Taldearen osatzeko, nihaur ere bortxatua izan nintzen jokalaria izaten.

Hiru karga baneuzkan beraz bizkar gainean: idazle, jokalaria eta gainera Antzerkilarien Biltzarra elkarteburu gisa ni nintzen gure taldearen arduradun nagusia.

Zuzendaritza Pettan Elissalde segurtaturik, *Bai ala ez* antzerkia Donibane Lohizunen estreinatu genuen 1970ko apirilaren 14ean. Gero izan ginen Uztaritzen, Donibane Garazin, Baionako antzokian, Hazparnen eta Donapaleun. Antzerki beraren sei aldiz ematea, eta aldi oroz aretoak gainezka betetzea, kausitze ezinago ederra zitzaigun.

Antzerkialarien Biltzarra elkarteko Biltzar Nagusia 1970ko azaroaren 22an egin genuen Donapaleun.

Bukaeran, Administrazio Kontseiluan segitzeko prest agertu ginenak edota lehenbiziko aldiz sartu zirenak:

Aldudetik: Ferdinand Bidaurreta eta Henri Chabagno; Hazparnetik: Michel Brust; Beskoitzetik: Albert Bidart; Heletatik: Maite Dunat eta Jean-Pierre Mendiboure; Iholditik: Jean-Pierre Arrangoïts, Etienne Pochelu eta Ernest Alkhat; Itsasutik: Janamari Malharin;

Antzerkilarien Biltzarra taldetik: Angel Arregi, Jenofa Chabagno, Pettan Elissalde, Txomin Ezponda eta Daniel Landart.

Antzerkizale gisa: Peio Durruty (orduan Donapaleun lan egiten zuena), Margaita Etchelecou (Donazaharre) eta Eñaut Larralde (talde desberdinetako jokalaria luza lagunduko zituena).

Lehenbiziko urratsa Hegoaldean

Angel Arregi lagunak kontseilaturik, Iker Gallastegi sartu zitzaigun Antzerkilarien Biltzarra taldean, zuzendari gisa. Jatorriz Hegoaldekoa, Iker Gaillastegi, Biarritzen bizi zen baina gaztaroa Irlandan iragana zuen.

Laguntza ezinago ederra ekarri zigun eta berrikitan idatzia nuen «Noiz?» antzerkia 1971ko martxoaren 29an aurkeztua izan zen Baionako antzokian.

Orduan bide berri bat urratu genuen. Ez baikenuen gogotik kentzen, gure elkarteko Araudietan idatzi genuen bezala, Hegoaldeko antzerkilariekin harremanetan jartzea, Lazkaoko *Kemen* taldeko bospasei kide gonbitatu genituen Baionara eta bi hilabete berantago, maiatzaren 25ean, beren herrian programatu gintuzten. Nik dakidala, horrelako esperientzia, lehenbizikoa izan zen euskal teatroaren historian!

“Noiz?” obra, orotara, hamahiru aldiz antzeztu zuten: Baionako antzokian estreinaturik, gero Heletan (bietan), Getarian, Hazparnen, Irisarrin, Donibane Garazin, Atharratzen, Lazkaon, Donibane Lohizunen, Uztaratzen eta Parisen (bietan).

Iraupenaren zailtasuna!

Beroan-bero lau antzerki plazaraturik, eta azken biek hainbeste tokitan izanik, 1972. urtea hurbildu zitzaigun ohartu gabe, eta gertatu ginen “eskuak hutsik”, testu berririk gabe.

Orduan, baleki-bale, multzo bati irakurri nion urte zenbait lehenago euskaratua nuen “Odolezko eztaiak” Federico Garcia Lorcaren “Bodas de sangre” obra famatua. Hark ere sekulako jokalaria andana eskatzen baitzuen, eta bestalde, ez baitzen batere euskal girokoa, gehienek erabaki zuten ez segidarik ematea.

Haiek nahiko zuketan antzerki berri bat idatz niezaien, aitzineko bi obren idurikoa. Baina garbiki erantzun nien ezetz, ez nuela posible, ordurako Lazkaoko taldekoei hitzeman bainien, eskerronez, zerbait eskainiko niela. (Hitza atxiki nuen baina Espainiako zentsurak “Etxe gabeak” antzerkia osoki debekatu zigun)!

Antzerkilarien Biltzarrako bilkura batean, Jean-Pierre Mendiboure heletar bertsolari-antzerkilariak testu bat utzi zidan irakurtzeko. “Gure borda” deitzen zen. Gustaturik, aitzineko lau antzerkietan ari izan ziren batzuek (Txomin Ezponda, Michel Brust etab), beti Iker Gallastegi zuzendari, Hazparnen taularatu zuten 1972ko udaberrian.

Antzerkilarien Biltzarratik sortu taldea lau urtez gaitzeko indarrean izanik, bost urteren buruko hantsantu zen, “eritu”, eta 1973an, ez zuen antzerkirik taularatu. Elkarteko bilkurak ere hil zorian gertatu ziren.

Ene aldetik, urte hartan, *Hil biziak* antzerkia idatzi nuen eta Garaziko herri desberdinetako zortzi gazterekin errepikak eginik, eta taldeak izentzat “Euskaldun

gazteria” harturik, 1974ko apirilaren 27an eskaini genuen Donibane Garaziko *Le Vauban* zinema aretoan. Orduan ere hiru kargu baneuzkan: idazle, zuzendari eta jokalaria!

Urte bat berantago aldiz, Hazparneko eta inguruetako jokalariek berriz ere Antzerkilarien Biltzarraren izenean, *Xuri gorriak eta...* nik idatzitako antzerki berri bat eskaini zuten 1974ko apirilaren 21ean Hazparneko *Haritz-Barne* zinema aretoan. Ondotik, beste lau tokitan izan ziren.

Eginak eta egitekoak

Antzerkilarien Biltzarra elkarteak, 1975ean, bere urteko Biltzar Nagusia azaroaren 16an egin zuen Hazparneko *Jeunes Basques* elkartearen egoitzan. Talde hauek ordezkatuak ziren: Aldude, Baigorri, Garazi, Hazparne eta Itsasu. Debako Goaz taldeko bost lagunek ere parte hartu zuten.

Lehendakari gisa ongiatorri beroa gutziaturik eta AB elkartearen historia laburzki eginik, hona Daniel Landartek aipatu zituen zazpi puntuak:

Laguntza eskasa. - Gure elkarteko Araudietan idatzia baitago euskal kultura bultzatu behar dugula molde egokiak erabiliz, Antzerkilarien Biltzarraren babesean berehala talde bat sortu genuen herri desberdinetako jokalariaiek elkartuz. Eta erran dezakegu, alde horretarik, gure hitza atxeki dugula sei obra berri plazaratuz. Desafio handia, kostarik kosta, altxatu duguna.

Gure elkartearen helburua zen ere Iparraldeko talde guztien biltzea, koordinaketa lan bat eginez. Zorigaitzez laguntza guti ukan dukezue. Ez zaituztegu lagundu, eta gainera, zuen antzerkilari batzuk “hartu” dizkizuegu gure taldearen osatzeko, zuena arrisku gorrian ezarriz. Beste herri batzuetan aldiz, beren-ber segitu dute eta beti oroituko naiz nolako lanak erabiltzen zituzten, adibidez, Ibarlako gazteek, sostengatzailerik suharrena Arño Harispuru beren auzapeza zutelarik eta Eñaut Larralde laguntzaile. Talde batzuk bidean gelditu dira. Beharrik beste batzuek ihardukitzen dutela! Beraz puntu ilun-ilun bat: laguntza eskasa!

Biltokia. – Gure elkarteko bilkurak, hastapenean, Baionako Cordeliers karrikako 14ean egiten genituen, Enbataren egoitzan. Baina Frantses Gobernuak 1974ko urtarrilean mugimendu abertzalea debekatuz geroztik “aterberik” gabe gaude. Han geneuzkan papereria eta antzerki testuak tarrapatan kendurik, orain etxean dauzkat, baina absolutuki egiazko toki bat behar genuke, gure bilkuren egiteko, etb.

Artxiboak. – Biltoki bat bagenu, eta hori gure xede premiatsuenetarik bat da, gure txostenak, antzerki testuak eta antzerkigintzaz idatzi artikuluak edota liburuak han ezartzen ahal genituzke. Atzo eskuratu dudan gutun batean, Janamari Malharin andereak jakinarazten dit: “Agertu izan diren antzerki gehientsuenak eskutan ditut eta nahi dituenari presta nezazke”. Beraz sail hori ere bilkura honetan barnatu behar genuke.

Antzerki formakuntza. – Euskal teatrolarientzat formakuntza egunak antolatzea, gaur egun arte, ez dugu obratu. Zergatik ote? Lehenago aipatu dudan Malharin andereak erraten zidan bezala: “Akitua ariko zira gazte baten moldatzen, urte batez edo biez zerbaitxka eginen dautzu bainan gero betikoz galduko duzu. Ez zaizu besteez egin komediaren ikustera ere jinen”. Badakit bai errealitatea zein den: gure taldeetan ez da gazterik baizik eta ezkontzen direneko antzerkia uzten dute. Hortakoz, Iparraldean ere, adin guzietako jokalariek behar genituzke. Otoizten zaituztet beraz, hemen zareten guztiak, luzaz eta luzaz segi dezazuen. Zuen beharren arabera formakuntzak antolatuko ditugu euskal antzerkilariak beste herrialdeetako mailakoak izan daitezen.

Administrazio Kontseilua. – Gaur dugu gure elkarteko administrazio kontseiluko kideen arraberritzea. Hamabost lagun behar ditugu eta haiek gero bulegoa hautatuko dute. Ez dugu dretxorik karguen arinki hartzeko. Angel Arregi elkartetik joanez geroz bereziki franko bakarrik sentitzen naiz hainbeste eginbeharren kudeatzeko, eta beraz fermuki galdetzen dizuet, zinez lanean aritzeko gogoarekin sar zaitezten gure elkarteko administrazio kontseiluan.

Hegoaldeko antzerkilariak. – Dakizuen bezala, Euskal Herria ez da Bidasoan gelditzen. Argi dugu mugaz bestaldeko antzerkilariekin ere harremak ukan behar ditugula eta ongiatorri berezi bat egiten diet Debako *Goaz* taldeko jokalariei bilkura honetan parte hartu nahi izan dutelako. Pentsatzen dutlehenbiziko urrats honek ondorio onak ukanen dituela. Bestalde, Udako Euskal Unibertsitate denboran, Uztaritzen, Patri Urkizu eta Bernardo Atxaga solastatu ditut eta iduritzen zait antzerkiaren geroaz argitzen ahalko gintuzketela. Ikusi behar noiz eta nola.

Idazle berriak eta haurrak. – Antzerki berriak eskas ditugu. Antzerki idazleak edota itzulpenak beharrezkoak zaizkigu. Gure elkarteak ez ote luke zeingehiagoketa bat antolatu behar bi sari eder emanez, bata euskal sorkuntzarentzat, bestea itzulpenarentzat? Zeren iduritzen zait antzerki hautu gehiago balitz, jokalariek aiseago atzemanen genituzkeela. Bestalde, griñatu behar dugu haurrez. Haurrek behar dituzte,

ttipi-tipittik, haientzat egin antzerkiak gozatu. Biderik hoberena, egun batez, haiek ere antzerkilari bilakatzeko!

Azken hitza: Ikusi duzuen bezala, ez gara geldirik egonak baina oraindik asko gelditzen zaigu obratzeko. Eta guk egiten ez duguna, ez du beste nehork egingen! Bakoitzak gure dohaien eta ahalen arabera, jo dezagun aitzina, euskal antzerkiaren zerbitzari!

Mintzaldi luze haren ondotik, puntu batzuk eztabaidatuak izan ziren eta taldeetako ordezkariak erran ziguten urte hartan zer antzeztu zuten:

Aldudarrek: “Paper mende” (P. Larzabal);

Antzerkilarien Biltzarrakoeak: “Xuri Gorriak eta...” (D. Landart);

Baigorriarrek: “Herriko bozak” (P. Larzabal);

Garaztarrek: “Noiz?” (D. Landart);

Itsasuarrek: Hiru antzerki labur.

Antzerkilarien Biltzarrako Administrazio Kontseiluan 1975ean sartu zirenak:

Baigorritik: Peio Curutchary eta Marcel Haristoy; Garazitik: Arño Oxandabaratx eta Peio Berhocoïrigoin; Hazparnetik: Michel Bellecave eta Txomin Héguy; Heletatik: André Etchepareborde; Irisarritik: Jean-Jacques Idieder; Itsasutik: Michel Iturburua; Makeatik: Martin Ospital eta Gracien Indart; Urepeletik: Jean Goyhenetche eta Antton Alfaro; Urruñatik: Paul Sarcou jaun bikarioa. Daniel Landartek, bere aldetik, jakinarazi zuen segituko zuela eta bi kide berri hauek prest zirela elkartean lan egiteko: Koldo Amestoy eta Iker Gaillastegi.

Hamabost egun berantago, 1975.eko azaroaren 30ean, Hazparnen bildu ziren administratzaileak eta bulegoko kideak hautatu zituzten:

Elkarteburu: Daniel Landart. Buruorde: Marcel Haristoy. Idazkari: Peio Berhocoïrigoin. Diruzain: Michel Ithurburua. Bestaldekoekin harremanak: Arño Oxandabarats. Behar teknikoez arduratzeko: Iker Gallastegi eta Koldo Amestoy.

Biltzar Nagusian aipatu puntu batzuk barnagotik aztertuak izan ziren. Formakuntzaren ardura Iker Gallastegik bere gain hartu zuen eta Koldo Amestoyek hiru liburu manatu zituen: Formation de l’acteur, Le personnage et l’interpète eta Le travail à l’Actor’s Studio.

Bestalde, elkartearantzat biltoki baten bilatzen ari baikinena, jakinik *Herria* astekariaren Baionako egoitzan gela hutsak bazeudela, gutun bat bidali genion André Ospital kudeatzaileari. Ez genuen erantzunik eskuratu.

Bederatzi talde 1976an

Antzerkilarien Biltzarrak sortu taldea desagertu zen 1975ean baina «Xuri Gorriak eta...» antzerkian parte hartu zuten batzuek nahi ukan zuten segitu, eta 1976an, talde berri bat sortu zen Hazparnen, geroago *Bordaxuri* izena hartuko zuena. Talde berrian bazeuden hazpandarrak baita ere auzo herrietakoak. Iker Gaillastegi zuzendari zutela, Piarres Larzabalen «Angles ginelarik» estreinatu zuten 1976ko maiatzaren 4ean.

Urte berean, beste antzerki berri bat ere plazaratu zuten Baigorriarrek maiatzaren 2an, eliza ondoko plaza ttipian. Gaia jokalariekin hautaturik eta eztabaidaturik, Daniel Landartek idatzi zien “Etxe hartzea”, Christiane Etchaluzek, bere aldetik, ideia berriak dozenan hamahiru ematen zizkiela.

Bi antzerki berri horietaz bestalde, beste zazpi taularatu zituzten:

Aldudarrek: “Nork hil du Oihanalde?” (P. Larzabal);

Garaztarrek: “Bai ala ez” (D. Landart);

Heletarrek: “Herriko bozak” (P. Larzabal);

Irisartarrek: «*Gure borda*» (J.-P. Mendiboure);

Itsasuarrek: «Pettan Mihiku» (Paul Guilsou, Molièren arabera);

Makearrek: “Suedako nexkatxa” (P. Larzabal);

Urruñarrek: “Zorionezko zorrak”.

Daniel Landartek lagundu zituen Baigorriarrak, Garaztarrak, Irisartarrak eta Makearrak haien errepiketan parte hartuz.

Mugaz bi aldetako elkarte bati buruz

Antzerkilarien Biltzarra elkarteko bilkurak, urtean zehar, franko jarraituki eginak izan ziren, hala nola Biarritzen, Donibane Garazin, Hazparnen, etb. Urtarrilaren 16an iragan zen lehenbizikoan, Koldo Amestoy, Iker Gallastegi eta Daniel Landart elkartu ziren Biarritzen. Hiruen artean ikusi zuten teknika aldetik zein ziren beharrak

eta zer egin zitekeen. Iker Gallastegik beste bi lagunei parte eman zien gai horretaz ikerketa lan baten apailatzen ari zela eta Hazparneko taldeak ukanen zituela lehen fruituak.

Daniel Landartek, bere aldetik, absolutuki nahi zuen Hegoaldekoekin herreman iraunkorra lortu. Preseski, 1976an, Donostiako *Herri Irratiak* antolatu zuen “24 orduak euskaraz” gertakari aipagarria. Euskal kulturako ordezkariari proposatu zien egun oso batez eta euskara hutsez beren alorraz mintzatzea eta antzerkigintzaren izenean gonbitatu zituen: Martin Idiakez eta Lukas Dorronsoro (Deba), Eugenio Arozena (Oiartzun), Maria Arizmendi eta Jokin Izagirre (Urnieta) Patri Urkizu (idazlea) eta Daniel Landart (Iparraldearen izenean).

Irratsaio interesgarri haren ondotik, Daniel Landarten hitzak: “Zin egin dezagun, gaur, mugaz bi aldeetako euskal antzerkilarien artean elkarte bat sortuko dugula”!

Funtsean, deialdi batean Daniel Landartek hauxe zioen:

“Antzerkilarien Biltzarra elkartearen bilkura 1976ko urriaren 10ean egingen dugu Baigorriin, goizeko 10:00etan, apezetxeko gela batean.

Garaziko bilkuraren segida bat izanen da eta nahi genuke ahalaz TALDE GUZIEK parte har dezaten oste handian.

Mugaz bi aldeetakoen artean “**Antzerki federazio**” bat egiten ari garen mementoan, sekula baino gehiago elkar atxiki eta sostengatu behar dugu.

Pentsatzen dut beraz dei hau entzuna izanen dela eta azken bilkurara jin ez zaretenak ere aldi honetan agertuko zaretela.

PS – L’expression corporelle edo “Gorputz adierazpena” ezagutu nahi duenak parada bat ukanen du. Urriaren 9an, arratsaldeko 5 orenetan Intxixu taldeko jokalariek emanen digute beren sailaren berri. Oiartzunera joan nahi dutenek etxera deit nezatela: 03.87.60, astelehena baino lehen”.

Beste deialdi batean berriz hauxe irakur dezakegu:

« (...) Gure Biltzar Nagusia 1976ko abenduaren 12an egingen dugu, goizeko 10:30ean, Baigorriko apezetxeko sala batean. Antzerkian ari diren GUZIAK gomit zarete eta otoi falta-faltarik gabe zatozte.

Bestalde, mugaz haindiko euskal antzerki taldeekin, ekainean hasi genituen gure lehen harremanak, eta geroztik hilabeteetan behin elkarretaratu gara, Urnietan.

Aldi honetan, hangoak eta hemengoak Hazparnen bilduko gara, azaroaren 28an Haritz Barneko sala batean, goizeko 10etan. Hazparneko bilkuran, elkarte berriko Araudiak aipatuko ditugu bereziki. (...)

Bi abisu:

- Azaroaren 28ko bilkuratik landa, Hegoaldekoak hemen bazkalduko baitira, haiekin jan nahi baldin baduzue, eman zuen izena: Koldo Amestoyri.
- Oiartzungo *Intxixu* antzerki taldea Baigorriara ekarraraziko dugu gorputz espresio saio batentzat, abenduko arratsalde batez. Xehetasunak geroago emanen dizkizuegu. (Aipa zuen itzulian).

==+==

Antzerkilarien Biltzarra elkartearen historia ongi ulertzeko bi zatitan ezarri dugu:

- lehen hamar urteak (1966-1976): Iparraldean kokatzen zen mugimenduaren xehetasunak emanez;
- beste bost urteak (1977-1981): Hegoaldean EATB sortuz geroztik, mugaz bi aldeetako antzerkilariek elkarrekin lan egin baitzuten.

Antzerkilarien Biltzarra, Hegoaldeko antzerkilariekin sei urtez seriozki lanean ari izan ondoan, egiazko batasuna egin nahiz, 1982ko osailean bilakatu zen **Euskal Antzerkilari Taldeen Biltzarrea (EATB) Iparraldeko adarra**, baina ofizialki bi elkarte ziren, bata Frantses Legeaz onartua, bestea Espainiakoaz, eta bakoitzak, diru aldetik bere autonomia atxiki zuen.

Daniel LANDART

Etxeko paperen arabera.
2014ko maiatzean idatziz finkatua.

Antzerkilarien Biltzarra taldeak antzeztu obrak

eta jokalarien izenak:

MATALAZ (1968)

Idazlea: Piarres Larzabal – Zuzendariak: Roger Idiart (hastetik buru) eta Telesforo de Monzon (azken errepikentzat).

Jokalaria: Michel Brust eta Jeannot Fourcade (Hazparne); Jeannot Iratzoquy, Battitte Larretche eta Ramuntxo Mugica (Urruña); Manuel Sein *Xanpun* bertsolaria eta Angel Arregui (Donibane Lohizune); Martxelin Arbelbide (Heleta), Pettan Elissalde (Irisarri); Gilbert Sallaberry eta Daniel Landart (Mugerre). Gutarteratu zitzaizkigun ere: Ugutz Robles de Aranguiz beskoiztarra, Txomin Ezpona bertsolaria, Christiane Etchalus (Iruñean preso egona eta diputatugai izana);

Angèle Etcheverry (Lekuinekoa); Marie-Jeanne Cedarry (Bidarraikoa) eta Pierre Saint-Jean (Ainhoakoa).

IBANETA (1969)

Idazlea: Piarres Larzabal – Zuzendaria: Telesforo de Monzon, Christiane Etchalus ideia berri proposatzaile.

Jokalariak : Michel Brust, Pierre Etcheverry eta Jeannot Fourcade (Hazparne); Mayie Oztarena eta Angel Arregui (Donibane Lohizune); Josephine Daymon eta Daniel Landart (Mugerre); Jenofa Chabagno (Aldude); Jeannot Etcheverry (Heleta); Pettan Elissalde (Irisarri); Battitte Larretche (Urruña); Marcel Doyhenart (Donamartiri); Christiane Etchalus (Domintxine); Txomin Ezponda (bertsolaria) eta Ugutz Robles de Aranguiz beskoiztarrak bi rola egin zituen.

BAI ALA EZ (1970)

Idazlea: Daniel Landart – Zuzendaria: Pettan Elissalde.

Jokalariak: Annie Dunat eta Anita Garra (Heleta); Michel Brust eta Jeannot Fourcade (Hazparne); Jenofa Chabagno (Aldude); Pettan Elissalde (Irisarri); Daniel Landart (Mugerre); Jean-Louis Laffite (Basusarri); Txomin Ezponda (bertsolaria) eta Paul Etchemendy (Ezpeleta).

NOIZ? (1971)

Idazlea: Daniel Landart – Zuzendaria: Iker Gaillastegi.

Jokalariak: Pierrette Etcheverria (Arrangoitze), Michel Brust eta Jeannot Fourcade (Hazparne); Jenofa Chabagno (Aldude); Pettan Elissalde (Irisarri); Léonie Récalde-Bidegain eta Jeannot Etcheverry (Heleta) eta Txomin Ezponda (bertsolaria).

GURE BORDA (1972)

Idazlea: Jean-Pierre Mendiboure - Zuzendaria: Iker Gaillastegi.

Jokalariak: Pierrette Etcheverria eta Robert Duhalde (Arrangoitze); Michel Brust eta Dominique Irigoien (Hazparne); Kattalin Idiart-Larçabal (Baiona); Germaine Oyhénart (Donoztiri) eta Txomin Ezponda (bertsolaria).

XURI GORRIAK ETA... (1975)

Idazlea: Daniel Landart – Zuzendaria: Iker Gaillastegi.

Jokalariak: Eugénie Garay, Germaine Durruty, Mixel Brust, Beñat Hitta, Jean-Pierre Lahirigoyen, Michel Bellecave, Pierrot Fourcade eta Martin Zabalçagaray (Hazparne); Jean-Michel Bide eta André Ospital (Aiherra); Robert Duhalde (Arrangoitze); Ugutz Robles de Aranguiz (Beskoitze); Maite Diratchette (Gerezieta-Lekorne).

Antzerkilarien Biltzarra elkarte (Bigarren zatia: 1977-1982)

Bi urte... Kasik bi urte behar ukan genituen EATB elkartearen sortzeko, eta gero, haren biziarazteko.

Horrek erran nahi zuen, azkenean, gure euskal antzerkia ikuspegi “nazional” batekin ikusten genuela.

EATBren sortzeak, nahitaez, Iparraldeko ABko elkartekideei ere, halako “indar” bat eman zien, eta aspaldiko partez, bilkurak jarraituki egin zituzten.

Indarberitze hura posible bilakatu zen bereziki hirukote batek elkartean lan handia segurtatzen zuelakoz. Hauek ziren: Daniel Landart, Koldo Amestoy eta Klotilde Sempé. Azken honek bilkuren bildumak makinaz jotzen zituen.

Klotilde Sempé idazkari suharrari esker, badakigu gaur, **1977. urtean** Administrazio Kontseilukoak bildu zirela: urtarrilaren 23an, otsailaren 6an (Biltzar Nagusia), martxoaren 19an, apirilaren 30ean, maiatzaren 29an (EATBren sorrera Urnietan), ekainaren 11an, uztailaren 15ean, irailaren 16an, urriaren 21ean, azaroaren 25ean eta abenduaren 23an.

Urte hasierako bilkura gehienak Baigorriin egin zituzten baita beste herri batzuetan ere, hala nola Hazparnen, Irisarrin eta Donamartirin.

1977ko gai nagusiak

Taldeek zein antzerki eman zuten:

Heletarrek: “Herriko bozak” (P. Larzabal). Obra hau iaz herrian emanik, aurten aldiz Pariseko *Euskal Etxean* ariko dira otsailaren 12an.

Irisarritarrek: «Noiz?» (D. Landart).

Garaztarrek: “Matalas” (P. Larzabal).

Hazpandarrek: “Bordaxuri” (P. Larzabal).

Aldude-Urepeldarrek: “Xuri Gorriak eta...” (D. Landart).

Baigorriarrek: Iaz «Etxe sartzea» eman zuten lagun zenbait elkartzen dira beste “tobera” baten gaiaren ikertzeko eta antolatzeko.

Urruñarrek: antzerki labur bat emanen dute Eguberriz.

Arrosan ere, gazte zenbaitek Larzabalen “Mutil Berri” moldatu nahi lukete.

Makean aldiz, jokalaria eskas izanez, aurten ez da deus izanen.

Administrazio kontseiluko eta Bulegoko kideak

Biltzar Nagusi gisa kontsideratua izan zen 1977ko otsailaren 6ko bilkura Baigorriin. AB elkartearen istorioaren laburpen baten ondotik, taldeek beren egoeraren berri eman zuten eta atseginekin ohartu ginen guztiek gure elkartearen beharra sentitzen zutela.

Koordinaketa lana horrela finkatu genuen:

- antzerki obrak biltzea edo berrien zabaltzea,
- diru kontu bat sortzea eta jarraikitzea,
- ahal bezainbat taldeen artean informazioa zabaltzea.

Talde bakoitzetik bi ordezkari hautatuak izan ziren:

Aldude-Urepeletik: Antton eta Jean-Léon Alfaro anaiak,

Heletatik: André Etchepareborde eta Ixabel Borthéirie,

Irisarritik: Pierre-Arnaud eta Jean-Jacques Idieder anaiak,

Baigorritik: Filipe Bidart eta Erramun Martikorena,

Hazparnetik: Txomin Héguy eta Mixel Bellecave,

Arrosatik: Beñat Errotabehere eta Bernadette Iputxa,

Garazitik: Klotilde Sempé eta Mixel Berhocoïgoin.

Ondotik bulegoaren izendatzea egin zuten:

Lehendakari: Daniel Landart - Lehendakariorde: Txomin Héguy,

Idazkari: Klotilde Sempé - Diruzain: Koldo Amestoy.

Diru kontuak

Baigorriin egin Biltzar Nagusiko bilduman, diru kontuak horrela aipatuak ziren:

«Gure elkarte orain arte kili-kolo egon baldin bada, diru arrazoi batengatik ere izan daiteke. Egundaino taldeek ez diote Antzerkilarien Biltzarrari diru laguntzarik eman. Hemendik aitzina aldiz partelietasun hori baitezpadakoa iduritzen zaigu. Datorren bilkuran gai hori bereziki aztertuko dugu».

Koldo Amestoy elkarteko diruzain hautatua izan zelarik, ABko kutxan 1.745 libera (266 €) gelditzen ziren.

Apirilean egin bilkuraren bilduman hauxe idatzia zegoen:

“Diruzainak jakinarazten dizue EATB elkartean parte hartzeko, kuota edo urtesaria 300 libera (45,74 €) finkatua izan dela. Antzerkilarien Biltzarra engaiatu da Iparraldeko hiru taldeen urtesariaren ordaintzera, orotara 900 libera (137,20 €).

Antzerkilarien Biltzarra, gure partelietasunaz bizi dadin, guk ere, 300 liberako kuota hori, maximum bezala ezarriko dugu, gero talde bakoitzak ahal duena eman dezala. (Orainokoa, Irisarriko taldea bakarra da bere urtesaria emana duena). Aitzinetik milesker. Koldo.”

Jokalari eta zuzendari guztiak kitorik edo musutruk ari izanez eta emanaldi guti zutelako, taldeetako ordezkariak ez ziren batere bero zerbaiten ordaindetzeko...

Eskaltzaleen Biltzarrak, hark ere ahal zuelarik, 2.000 libera (305 €) ematen zizkion ABri.

EATB Urnietan

EATB elkarte berriko Araudiak Iparraldekoek irakurri zituzten eta onartu. Hona nor hautatuak izan ziren beren taldeaz mintzatzeko maiatzaren 29an Urnietan:

Aldudetik: Antton Alfaro, Baigorritik: Filipe Bidart,

Garazitik: Mixel Berhocoïrigoin edo Klotilde Sempé.

Hazparnetik: Mixel Bellecave, Heletatik: André Etchepareborde,

Irisarritik: Jean-Jacques Idieder.

Maite Diratchette jokalaria omenaldia

Hazparneko taldean ari zen Maite Diratchette errepika batetik etxeratzean auto istripuz hil baitzen, Antzerkilarien Biltzarrak omenaldi bat eskaini zion 1977ko

ekainaren 5ean, Aiherran. Bizia galdu zuen tokian berean entzun genituen mintzaldiak, bertsoak, eta oroitarri gisa, Debako *Goaz* taldeko Gilermo Andonegi antzerkilariak egin eskultura lurrean finkatua izan zen.

Gorputz espresioa

Otsailaren 19an Donibane Garazin (Garat ostatu gaineko sala handian) eta uztailaren 31an, Donoztirin (parropiako etxean), hogeita bost antzerkilari elkartu ziren, Oiartzungo jokalaria batzurekin «gorputz espresioa» zer zen ikusteko eta praktikan ezartzeko.

Intxixu taldea Baionan

Antzerkilarien Biltzarra elkarteak gomitaturik Oiartzungo *Intxixu* taldeak «Txirrita: Deuseztik izatera» emanaldi bat egin zuen urriaren 28an, Baiona Polo-Beyrisko Gaztetxean, ikastolaren alde.

Loiolako topaketak

EATBek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetzarekin, bi eguneko elgarretaratze bat antolatu zuen Loiolan eta AB arduratu zen Iparraldeko bost taldeetako jokalarien motibatzeaz.

Tokia: Azpeitian, Cristo Rey Seroren etxean. Biltzea: 1977ko azaroaren 5ean, arratsaldeko 18:30ean. Ondotik lau mintzaldi. Igande goizean eta arratsaldean, taldeka banaturik gai desberdinak aztertu zituzten.

Orotara 16 taldeetako 67 jokalarik parte hartu zuten.

1978ko gai nagusiak:

Egoitza eta artxiboak

Bilkura gehienetan, beste gaien artean, biltokia eta artxiboak aipatzen genituen.

Heletako ordezkariak jakinarazi zuten: “Herriko Etxearen zaharberritzen ari dira, eta behar bada, han gela bat balitzateke. Baina hori bi urteren buruan”...

Daniel Landartek, bere aldetik, prentsan agertu artiluluak, argazkiak etb, ahal bezain artoski atxikitzen zituen, geroago elkarteari eskaintzeko xedearekin.

Antzerki taldeak eta ikastolak

Kantaldi eta antzerki emanaldi gehienen antolatzaileak, garai hartan, ikastolak ziren, dirua behar zutelakoz irakasleak ordaintzeko. Hasieran beraz, taldeak dohai ari ziren, musutruk. Baina ikusirik, toki batzuetan, saioak ez zituztela behar bezala antolatzen, taldeak adostu ziren baldintza hauen finkatzeko: emanaldiko gastu guztiak kendu eta, sarreratik lortu diruaren erdizka egitea. Galtzeak halaber. Gero, sasoiaren bukaeran, talde batek ikastolari eskaintza bat egin nahi baldin bazion, hori bere gain hartuko zuela.

Urteko Biltzar Nagusia

AB elkarteko Biltzar Nagusia maiatzaren 7an, igande goizez, egin genuen Gonibane Garazin.

Hona hemen, Daniel Landart elkarteburuaren mintzaldi luzeko zatirik garrantzitsuenak:

“Lehenik eskertu zituen Klotilde Sempé, Koldo Amestoy eta Txomin Héguay bulegokideak baita taldeetako ordezkariak, halaber Biltzar Nagusi hartan parte hartzen zuten guztiak.

EATBren sortzea gain-gainetik goresirik, Iparraldeko ahuleziak aipatu zituen:

“Duela bi urte, 1976an, bederatzi talde bagenituen, iaz zazpi, aurten bost. Taldeen txikitze edo agortze hori, kezagarri zaigula, nola uka? Bestalde, Iparraldean, non egiten dugu euskal antzerkia? Baxenabarren doi-doia. Lapurdiko kostalde guztia eta Zuberoa ez ditugu batere hunkitzen, edo arras guti. Izigarrikeria bat da hori. Minoria batentzat baizik ez dugu antzeztzen! (...)

Geroari buruz sei pondu hauek aztertu zituen:

1. – Euskal antzerki politika baten finkatzea,
2. – Politika horren kudeatzeko jokalaria multzo baten biltzea,
3. - Antzerki idazle gazteak edota talde-lanak bultzatzea,
4. - Probintzia guztietara joaten ahalko diren obrak prestatzea,
5. - Gaurko teknikak baliatzea,
6. - Urte osoan antzez lezakeen talde berri baten sortzea.

(...) Euskal kantuz mintzatzean JoxAntton Artze olerkariak erran zuen bezala, penizilina beharrean dagoena ezin da oilo salda emanaz engainatu... Bizkitartean ez ote da horrela gertatzen euskal kulturaren orokorki eta antzerkigintzan bereziki?

Dena dela, bihotz-bihotzetik erranen dizut halere, ez dezagun otoi kuraia galdu, eta euskal antzerkia kinka txarrean izanagatik, lotsatzeko partez, oraindik lan gehiagoren egitea hitzeman

dezagun. Eta hemen, Donibne Garazin baikara, Bernat Detcheparerekin batean bota dezagun:
“Euskal antzerkia, jalgi hadi kanpora! Euskal antzerkia, jalgi hadi mundu guztira!
(DL – 1978/V/7)

Administrazio Kontseiluko kideak eta bulegoa:

Aldude-Urepeletik: Antton eta Jean-Léon Alfaro anaiak,

Heletatik: Ixabel Borthéirie eta Maite Larre,

Irisarritik: Monique Legarto eta Daniel Arbeletche,

Hazparnetik: Txomin Héguy,

Garaziko Biper Beltx taldetik: Klotilde Sempé eta Jean-Michel Galant.

Ondotik bulegoaren izendatzea egin zuten:

Elkarteburu: Daniel Landart - Buruorde: Monika Legarto.

Idazkari: Klotilde Sempé - Diruzain: Koldo Amestoy.

Mixel Berhocoïrigoin

Biltzar Nagusiaren bukaerako Landarten hitzak:

“Duela aste zenbait, ABko lagunei proposatu nien Mixel Berhocoïrigoin jokalaria oroitzapen bat eskaini behar geniola, euskal antzerkigintzan bakarra delakoz, memento honetan, hamar obra antzeztu dituen. ABkoek, aho batez, gogotik onartu zuten.

Gero, anaikorra eta biziki sinplea izan nahi zuen eskaintzak “omenaldi” hitza hartu du, eta hori, soberaxko iduritu gure Mixel adiskideari.

Beraz, orain, berak galdaturik, ez diogu oparirik emanen, bakarrik gure mileskerra, euskal teatroan iraunkor delakoz.

Baina hemendik urte zenbat barne, beste hamar antzerki emanen dituelarik, piper beltz poxi baten laguntzarekin, orduan, orduan, berriz mintzatuko gara”...

Ikastolen alde deialdia

Ikastolak kudeatzeko sortu Seaska elkarteak, handik edo hemendik, beti trabak jasan behar zituen. Haren sostengatzeko, behin baino gehiagotan, antzerkilarien elkarteak dei hau bezalakoak hedatu zituen:

“Gure populuak, betidanik, euskal kulturaren eta hizkuntzaren alde daraman borrokan, euskal teatro taldeek eta Antzerkilarien Biltzarra elkarteak parte hartu dute.

Azken hamar urte hauetan bereziki, antzerkilari taldeek, beren maneran, ikastolen alde zerbait egin dute: edo Seaskari dirua emanez edo ikastoletako gurasoen laguntzarekin emanaldiak antolatuz.

Ikastola gure mintzairaren salbatzeko biderik hoberena da.

Ikastolak beraz, traba guztien gainetik, bizi behar du.

Eta biziko da, euskal populuak hori nahi duelakoz.

Nahikaria horren frogatzeko, etor oste handian, heldu den larunbatean, arratsaldeko 4etan, Baionako San Andreseko plazara.

Denak elkarrekin, ikastola bizi dadin!”

Martzelino Soroaren omenez

Euskal antzerki berriaren ehun urte betetze kari, Martzelino Soroa idazleari omenaldi bat eskainia izan zitzaion 1978ko irailaren 2tik 9a arte.

(Ikus xehetasunak EATB kapituluan: Daniel Landarten mintzaldia, Urnietan 1979/X/21ean).

1979ko gai nagusiak

Urtarrilaren 26an egin zuten bilkuraren bildumaz aparte, ez dago beste paperik Daniel Landarten artxiboetan. Baina honek argitasun interesgarriak ematen zizkigun:

Taldeen berri

Aldude-Urepele: “Mugari tiro” (P. Larzabal), lau aldiz eman dute,

Ezterenzubi: «Etxahun» (P. Larzabal) prestatzen ari dute,

Hazparne: Bi esketx prest dauzkate (bata franko luzea, 12 jokalarirentzat),

Heleta: “Hirugarren hitza” (Heletan eman ondoan, joan beharrak dira Senperera, Oragarrera, Aldudera, eta beharbada, Parisera ere),

Irisarri: «Ama» (D. Landart), Erramu bezpera arratsez eta Bazko arratsaldez.

Antzerki eskola

Hegoaldean antzerki eskola bat sortu dute, bi adar dauzkana. Bata, Donostian, katalandar irakasle batekin, bestea Deban italiar batekin. Arduradunak dira : Eugenio

Arozena eta Xabier Lete. Klase horiek sei hilabete iraunen dute eta astean hiruetan izanen dira.

Astelehenetan: antzerkiaren historia. Lehen eta laugarren asteazkenetan: historia, bigarren eta hirugarren asteazkenetan: maskarak. Ostirale oroz: gorputz espresioa.

Gorputz espresioa

Iparraldean ere, gai hori ezagutzen duen Guillaume Zaldumbidekin adosturik, erabaki dugu ostegunero elkartzea otsailaren hastapenetik aitzina.

Charte culturelle

Valery Giscard d'Estaing jaun presidentaren alderdi berekoak diren Andde Luberiaga eta Renaud d'Elissagray euskaltzaleak ari dira, Frantziako beste eskualde batzuek jadanik eskuratua duten bezala, Euskal Herrientzat *Charte culturelle* baten alde gogoetatzen. Daniel Landartek segitzen ditu bilkura horiek.

Urte saria

Talde guztiek beren urtesaria oraino ordaintzekoa dute! Serioztasun poxi bat, otoi! Edo bestela gure antzerkia, hortxe geldituko da, guhaurek ez dugulakoan sinesten egiten ditugun urratsetan. Beraz, faltarik gabe, igor zuen dirua, edo eskutik-eskura eman moltseroari. Noiz artino gauza bera errepikatu behar ote dugu?

Heldu den bilkura: Martxoaren 16an, 21:00etan, Hazparneko Eihartzea kulturetxean.

(Horrek frogatzen digu, urtean zehar, bilkurak egin zituztela, baina bildumarik ez dugu eskutartean).

1980ean, Antzerkilarien Biltzarra

lehendakariz aldatu

Elkartea eri...

Klotide Sempé ABko idazkariak antzerki taldeetako ordezkariari 1980ko irailaren 8an bidali zien gutunean irakur genezakeen:

“Gure elkartea aspaldian “panan” dugu. “Panan” edo eri. Eta erran genezake biziki eri ere. Bilkurarik ez, antzerki taldeak beren ber utziak, geroari buruz prestaketa sakonik ez ikusten, horra

zertan garen. Alta, segur gara, aurtan ere, antzerki taldeek zerbait eman nahiko dutela. Baina zer? Non? Nork?

Elkarren berri jakiteko eta antzerki sailan seriozki berriz hasteko, biltzarre bat egitea proposatzen dizuegu. Baina beharrezka iduritzen zaigu, biltzarre horretara etorri aitzin, bakarka edo taldeka, gogoetak barnatzea, horrela, geroan, antzerkilaritzaz agertzen diren ikusmoldeak hobeki ezagutarazteko. Gai gisa hauek aipa ditzakegu:

- Taldeen egoera eta geroa,
- Antzerkilarien Biltzarra elkarte zertarako?
- AB eta *Eraileak* kultura federakuntza (Izan talde abertzaleak bultzatua),
- Heletako biltokia,
- AB indar eta odol berri beharretan...
- Hegoaldekoekin harremanak
- Egiazko antzerki politika bat, eta beste.

Aski denbora galdurik badugu. Ordu da mugitzea. Zatozte beraz, falta faltarik gabe, biltzarre honetara: Irisarrin, Seroren etxean, heldu den ortziralean (irailaren 12an), arratseko 21:30ean. Zuen gainean kondatzen dugu. Aipa ere zuen itzulian. Bihotzetik agur!

Lehendakari aldaketa

Hamahiru urtez elkarteburu izanik, Daniel Landartek bere kargua utzi zuen, baina halere, biziki hurbiletik segitzen zituen bilkura guztiak, eta EATBko Iparraldeko ordezkari nagusi postuan jarraitu zuen.

Daniel Arbeletche irisartarrak hartu zuen 1980an Antzerkilarien Biltzarra elkartearen lehendakaritza, aldean zeuzkala: Monika Legarto (elkarteburuorde), Klotilde Sempé (idazkari) eta Koldo Amestoy (diruzain).

1981ko gai nagusiak:

Taldeetako ordezkariak bildu zitezkeen aski jarraituki baina artxiboetan ez dugu bilkuren arrastorik atzeman salbu 1981ko urriaren 9an, Heletako Herriko Etxean egin zuten batena, gai hauek aipatuz:

Taldeen berri

Ezterenzubi. - Duela hiru urte sortu zen *Zentzu gabeak* taldeak Larzabalen bi antzerki emanik, aurtan Sebaxtien Ihidoy herriko semeak idatzi “Oraiko haurrak” plazaratu du Ezterenzubin berean eta apirilaren 17an Donibane Garaziko Le Vauban zinema aretoan.

Makea. – Manex Pagolaren *Biba turisma* obra antzezturik, jokalariai elkartzeko hasiak dira “Ganix de Macaye” herritar famatuaz kabalkada apailatu nahi bailukete, 1982ko udan eskaintzeko gisan. Anartean zer egin?

Aldude. – Monzonen “Eneko Bizkai eta Maria Lorka” obra Ortzaizen eman zuten maiatzaren 1ean, Baigorriko kultur aste kari,

Oztibarreko Antzerkia. – Jokalari gehienak segitzeko asmotan daude eta Arño Larraldeak lagundu beharrak ditu antzerki baten hautatzen.

Biper Beltx (Garazi). – Ostegun oroz elkartzeko dira batzuk. Gaia: bakoitzak “denbora pasa zer den” gogoetatu eta *flash* batzuren bidez antzerki oso bat osatu.

Statuts pour la langue et la culture basques

Antzerkilarien Biltzarra elkartearen izenean bi *animateurs* beharrezkoak direla aipatu dugu. Beraz hori erabakirik Grazi Etchebehere, Isabelle Borthéirie eta Daniel Arbeletche lehendakariak gutun bat idatzi beharra zuten eskaera horren egiteko.

Euskal Antzerki Taldeen Biltzarrea

Urriaren 25ean Urnietan egin zuten bilkuran Daniel Landartek hauxe zioen: “Geroari begira, deblauki diot gure elkarrekin bi animadore behar dituela: bata Hegoaldeko, bestea Iparraldeko. (...) Bi animadore horiek EATBk ordain lezazke hala nola Eusko Jaurlaritzari, Diputazioei, Udaletxeei diru laguntzak eskatuz. Frantzian ere, Mitterrand lehenkariarekin, esperantza berriak baditugu”. (Ikus txosten osoa EATBren historia zatian).

Baionako Antzerki Festibala

Théâtre des Chimères taldeari hitzeman bezala, festibalaren informazioa hedatua izan da.

Heletako lokala

Biltoki berriaz Daniel Arbeletxe et Isabelle Borthéirie arduradunek xehetasunak eman dizkigute.

Eusko Jaurlaritzatik diru laguntza

EATB elkarrekin antolatutako 1981ko abenduaren 13an, Donostiako Costa Vasca hotelean bilera handi bat Eusko Jaurlaritzako eta Donostiako Foru Aldundiko buruzagiek hobeki ezagutuz zezaten euskal antzerkiaren egoera. Iparraldeko taldeen

izenean Daniel Landart mintzatu zen, eta harekin batera, hautetsi gisa, Paul Dutournier Sarako auzapeza eta Lapurdiko auzapezen batasuneko lehendakaria.

Bilera haren bultzatzailea Eugenio Arozena izan zen (*Intxixu* taldeko zuzendari eta EATBko sortzaileetarikoa), garai hartan Eusko Jaurlaritzako *Antzerki* Zerbitzuan sartu baitzen.

Eusko Jaurlaritzak 5.000.000 pesetas (30.000 €) eman zizkion EATBri eta diru kopuru hartarik 500.0000 pesetas (3.000 €) ukan zituen Antzerkilarien Biltzarrak. Lehen aldia zen horrelako diruketa eskuratzen zuela!

Bestalde, urte hartan Daniel Landartek proposaturik, euskal naziotasunaren izenean, bulego berriak onartu zuen izenez aldatzea: Antzerkilarien Biltzarra elkarte Euskal Antzerki Taldeen Biltzarrea bilakatu zen, baina funtsez eta diru mailan bi elkarte desberdin gelditu ziren.

EUSKAL ANTZERKI TALDEEN BILTZARREA EATB elkarte

1977an: Biltzar Nagusi sortzailea Urnietan

1979an: Biltzar Nagusian, hiru ekintza nagusi aipatu

1979an: Bigarren antzerki topaketak Loiolan

1981ean: Biltzar Nagusian, elkartearen geroaz gogoetatu

1982an: Antzerkilarien Biltzarra EATB bilakatu

1983an: EATB Iparraldeko adarra Heletan kokatu

1984an: Galarrotsak antzerki festibala hasi

1984an: Erakusketa eta Hegoaldeko taldeak Iparraldean

1981-1985: EATB Hegoaldeko adarraren ekintza nagusiak

1984-1995: EATB Iparraldeko adarraren ekintza nagusiak